Esp. kodea: 2023CPOB0001 **Gaia:** UDAL GALDARATEGIA MARKULETEKO 2. PABILIOIAN
Titularra: OZMA **Hasiera data:** 2023/01/24

UDAL GALDARATEGIA MARKULETEKO 2. PABILIOIAN EGOKITZEKO EXEKUZIO ETA JARDUERA PROIEKTUARI DAGOKION OBRA ADJUDIKATZEKO KLAUSULA TEKNIKOEN AGIRIA	**PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA ADJUDICAR LAS OBRAS CORRESPONDIENTES AL PROYECTO DE EJECUCIÓN Y ACTIVIDAD DEL TALLER DE CALDERERIA MUNICIPAL EN EL PABELLON Nº2 DE MARKULETE**
I.- PRESTAZIOAREN EZAUGARRIAK	**I.- CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN**
1.- KONTRATUAREN XEDEA.-	***1.- OBJETO DEL CONTRATO.-***
Kontratuaren xedea da Arrasaten **UDAL GALDARATEGIA MARKULETEKO 2. PABILIOIAN EGOKITZEKO EXEKUZIO ETA JARDUERA PROIEKTUARI**ri dagozkion obrak egitea, Meik ingenieria y Consultoría, S.L. enpresako Joseba Arregui Amilibiak, Ingeniari Industrialak, idatzitako Proiektu Teknikoaren arabera, oinarri hauekin batera Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zuena.	Es objeto del contrato la realización de las obras correspondientes al **PROYECTO DE EJECUCIÓN Y ACTIVIDAD DEL TALLER DE CALDERERIA MUNICIPAL EN EL PABELLON Nº2 DE MARKULETE** en Arrasate, conforme al Proyecto Técnico redactado por el Ingeniero Industrial Joseba Arregui Amilibia de la empresa Meik ingeniería y Consultoria S.L. y que fue aprobado por la Junta de Gobierno Local junto al presente pliego.
Pabilioia dago Markulete 2an. Lokalaren azalera erabilgarria da guztira 315,98 m2 ingurukoa.	El citado pabellón se encuentra en Markulete nº2. La superficie útil del local alcanza aproximadamente un total de 315,98 m2.
2.- AURREKONTUA.-	***2.- PRESUPUESTO.-***
UDAL GALDARATEGIA MARKULETEKO 2. PABILIOIAN EGOKITZEKO EXEKUZIO ETA JARDUERA PROIEKTUAn jasotako obrak egiteko aurrekontua guztira da EHUN ETA HOGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HOGEITA HIRU EURO ETA HIRU ZENTIMO (139.923,03 €), BEZ sartu barik, I. eranskinean ikusi daitekeen bezala.	El presupuesto de las obras contempladas en el PROYECTO DE EJECUCIÓN Y ACTIVIDAD DEL TALLER DE CALDERERIA MUNICIPAL EN EL PABELLON Nº2 DE MARKULETE, asciende a la cantidad de CIENTO TREINTA Y NUEVE MIL NOVECIENTOS VEINTITRES EUROS CON TRES CENTIMOS (139.923,03 €), IVA excluido, tal y como se puede ver en el Anexo I.
Beheranzko prezioa duten eskaintzak baino ez	Únicamente serán válidas las ofertas que se

dira izango baliozkoak, betiere aurkezten badira Klausula Administratiboen Agiriaren proposamen ereduari jarraituz.	realicen en euros a la baja, que se presenten siguiendo el modelo de proposición del Pliego de Cláusulas Administrativas.
Kalitate kontroleko planaren exekuzioa, 209/2014 Dekretuak ezarri bezala, kontratatuko du zuzenean jabetzak, eta berdin diolarik nor den eraikitzailea; hortaz, kalitate kontrolaren proiektuaren aurrekontu orokorraren kapitulua ez da lizitazio honen xedea.	La ejecución del plan de control de calidad, tal y como establece el Decreto 209/2014, se contratará directamente por la propiedad y con independencia del constructor, por lo que el capítulo del presupuesto general del proyecto correspondiente al control de calidad, no es objeto de la presente licitación.
Kontratuaren prezioan sartuta egongo da aleko prezioen zerrenda eta dagozkien prezio zatikatuen zerrenda (aurkeztuko balira), eta prezio horiek izango dira kontratua bete bitartean kontratuan kontuan hartuko direnak.	El precio del contrato incluirá una relación de precios unitarios y sus correspondientes descompuestos (en caso de que se presentaran), que son los que regirán el contrato durante la ejecución del mismo.
Aleko prezio horiek aurkezten ez badituzte, ulertuko dugu lizitatzaileak I. eranskineko ereduaren aurrekontuko berberak ekarri dituela, bere proposamen ekonomikoan edukiak agertzen duen beheranzko portzentaje berean eraginda (justifikatu beharreko kontu sail altxatuak kapitulua izan ezik. Azken horiek osorik mantenduko dira jatorrizko kopuruetan).	Si tales precios unitarios no son presentados, se entenderá que el licitador aporta los mismos del presupuesto del modelo del Anexo I, afectados en igual porcentaje de baja que el contenido en su proposición económica (salvo las partidas alzadas a justificar, que se mantendrán íntegras y no serán objeto de baja).
Era berean baina beti ere "C" artxibo electronikoaren barruan, aurkeztu ahal izango dira enpresa beraren salneurri zatikatuak, proiektuaren aurrekontua osatzen duten aleko salneurri guztiena.	Asimismo y siempre dentro del archivo electrónico "C", se podrán presentar los precios descompuestos propios de la empresa para esta obra, de todos los precios unitarios que conforman el presupuesto del proyecto.
Proposamen ekonomikoa adierazitako eran egin ezean (laburpen taula, proposamen ereduaren arabera, gehiturik aleko prezioen zerrenda bere salneurri zatikatuekin), lizitatzailearen proposamen ekonomikoaren zenbatekoa, baita kontratua aginduko duen aleko prezioen zerrenda ere, kontratuaren adjudikaziodunarekin egokituko dira, lehen azaldutako irizpideei jarraituz, kontratua sinatu baino lehen.	Caso de que no se formule en la forma indicada (tabla resumen según el modelo de proposición más la relación de precios unitarios con su descomposición), el importe de la propuesta económica del licitador así como el listado de precios unitarios que regirá el contrato, se ajustarán con el adjudicatario del contrato siguiendo los criterios expuestos anteriormente, antes de la firma del contrato.

Eskaintzak aurkezteko orduan, justifikatu beharreko kontu sail altxatuei dagokionez, kontuan izan beharko da baloratuko direla adjudikazio prezioetan, kontratuaren baldintzen arabera eta dagozkion neurketen emaitzaren arabera; hortaz, lizitazio honetarako, aurrekontuan jasota datozen justifikatu beharreko kontu sail altxatu guztiak mantenduko dira oso-osorik eta ez zaie baja emango, agiri honetako I. eranskinaren taulan jasota datorren bezala.	A la hora de presentar las ofertas, en lo que se refiere a las partidas alzadas a justificar, se deberá tener en cuenta que se valorarán a los precios de adjudicación con arreglo a las condiciones del contrato y al resultado de las mediciones correspondientes, por lo que a afectos de la presente licitación, todas las partidas alzadas a justificar incluidas en el presupuesto, se mantendrán íntegras y no serán objeto de baja; tal y como se recoge en la tabla del Anexo I del presente pliego.
Halaber, eskaintzak aurkezterakoan, lizitatzaileak kontuan hartu beharko du, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 126. artikuluan aipatzen den bezala, fabrikatzaile edo marka jakin bat aipatzen den aurrekontuko unitate guztietan, oro har, "edo baliokidea" aipamena sartu behar dela, obra unitatearen deskribapenean berariaz jasotzen ez bada ere.	Asimismo, a la hora de presentar las ofertas el licitador deberá tener en cuenta tal y como se menciona en el artículo 126 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, que con carácter general en todas las unidades del presupuesto en el que se haga referencia a un fabricante o marca determinada, se debe considerar que incluye la mención "o equivalente" aunque no se recoja expresamente en la descripción de la unidad de obra.
Lizitatzaileak kontuan izango du segurtasun eta osasunari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera eta urriaren 24ko 1627/97 Errege Dekretuan oinarriturik, haren arabera eraikuntza obretan gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena, segurtasun eta osasunari dagokien aurrekonturako, aurrekontuan xedatu barik gelditu diren gaiak, kontsideratzen da aurrekontua osatzen duten unitateetako aleko prezioetan sartuta daudela.	La empresa licitadora deberá tener presente que según la legislación vigente en materia de seguridad y salud y en base al Real Decreto 1627/97, de 24 de octubre, por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y salud en las obras de construcción, al presupuesto correspondiente a la seguridad y salud, en aquellos aspectos no detallados en el mismo, se considera que está incluido en los precios unitarios de las unidades que conforman el presupuesto.
Kontratua exekutatzen hasi baino lehen, kontratista adjudikaziodunak Segurtasun eta Osasun Oinarrizko Plana egingo du, dokumentazio teknikoan jasota datozen Oinarrizko Segurtasun eta Osasun Azterketetan oinarriturik; eta horrek aztertu, garatu eta osatuko ditu oinarrizko azterketetan	Previo al inicio de la ejecución del contrato el contratista adjudicatario elaborará un Plan Básico de Seguridad y Salud en base a los Estudios de Seguridad y Salud contemplados en la documentación técnica, que analice, estudie, desarrolle y complemente las previsiones contenidas en dichos Estudios,

datozen aurreikuspenak, eta egokituko zaie exekutatu beharreko lanei eta beti haren exekuzio sistemaren arabera.	adecuándolo a las labores a ejecutar y siempre en función de su propio sistema de ejecución.
Era berean, hondakinak sortu eta kudeatzeari buruz indarrean dagoen legeriari jarraituta (105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraiki eta eraisteko hondakinak sortu eta kudeatzea erregulatzen dutenak), kontratua exekutatzen hasi baino lehen, kontratista adjudikazioduna behartuta egongo da jabetzari plan bat aurkezten, agertuko duena zelan eraman aurrera bere ardura diren obligazioak, obra lanetan sortuko diren eraikuntza eta eraiste hondakinei dagokienez. Plana, zuzendaritza fakultatiboak ontzat eman eta jabeak onartuta, pasatuko da obraren kontratu agirien parte bat izatera.	Asimismo, atendiendo a la legislación vigente en materia de producción y gestión de residuos (Real Decreto 105/2008, de 1 de febrero, Decreto 112/2012, de 26 de junio, por los que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición), previo al inicio de la ejecución del contrato la empresa contratista adjudicataria estará obligada a presentar a la propiedad un plan que refleje cómo llevará a cabo las obligaciones que le incumban en relación con los residuos de construcción y demolición que se vayan a producir en los trabajos de obra. El plan, una vez aprobado por la dirección facultativa y aceptado por la propiedad, pasará a formar parte de los documentos contractuales de la obra.
3.- EXEKUZIO EPEA.-	***3.- PLAZO DE EJECUCIÓN.-***
Kontratazio honetako obrak egiteko epea guztira izango da HAMASEI (16) ASTEKOA, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu eta hurrengo egunetik hasita.	El plazo total de ejecución de las obras objeto de la presente contratación será de DIECISEIS (16) SEMANAS, contados a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.
Epe hori zenbatzeko, uztaila eta abuztua hilabete baliodunak dira.	A efectos del cómputo de este plazo julio y agosto se consideran meses hábiles.
Aurrekoa gorabehera, epe hori lizitatzaileak zehaztu behar du eskaintzan, kontuan izanik memoria teknikoan baloratuko dela, adjudikazio irizpideei dagokien atalean deskribatzen diren baldintzetan.	Sin perjuicio de lo establecido anteriormente, dicho plazo deberá ser concretado en la oferta por la empresa licitadora, teniendo presente que se valorará en los términos en los que se describe en el apartado correspondiente a los criterios de adjudicación.

Lanak antolatzerako orduan kontuan hartu beharko da galdaragileen tailerrean lanean arituko direla eta lizitatzaileak aintzat hartu beharko du bertako jarduera obrek eragozpenik sor ez dezaten.	A la hora de organizar los trabajos se deberá tener en cuenta que taller de calderería estará trabajando y la empresa licitadora deberá tener en cuenta la actividad del mismo para que las obras no supongan molestias.
Era berean, lokalerako instalazio hartuneak egiterako orduan, kontuan izan behar da, hartune horiek egiteko pabilioiko zerbitzuetan mozketaren bat egin behar izanez gero, galdarategiaren jardueran eragozpen gutxien sortuko duen ordutegian egin beharko direla.	Asimismo, a la hora de realizar las acometidas de instalaciones al pabellón, se deberá tener en cuenta que, en caso de tener que realizar algún corte en los servicios del pabellon para realizar dichas acometidas, éstas deberán realizarse en el horario que menos molestias genere a la actividad de la caldereria.
Dena den, edozelan ere, zuinketa egiaztatzeko akta sinatu aurretik, enpresa adjudikaziodunak proposatutako programa eguneratu eta adostu beharko da Udaltzaingoaren, Udaleko Zerbitzu Teknikoen, Zuzendaritza Fakultatiboaren eta eraikuntza enpresaren artean.	No obstante lo anterior, en cualquier caso, previo a la suscripción del Acta de Comprobación de Replanteo, el programa propuesto por la empresa adjudicataria se deberá actualizar y consensuar con la Policía Municipal, los Servicios Técnicos Municipales, la Dirección Facultativa y la propia empresa.
Lanen antolaketa eta exekuzio erak dakar berekin lan programazioa adostea kontratistak Udaleko Zerbitzu Teknikoekin eta lanen zuzendaritzarekin. Gorabehera horrek, lanak hasiko diren data aldatzeak bezala, ez du sortuko kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik; izan ere, lizitatzaileek gai horiek jaso behar dituzte eskaintza egiteko orduan.	La organización y el modo de ejecución de los trabajos conllevan que la programación de los mismos deba ser consensuada por el contratista con los Servicios Técnicos Municipales y la Dirección Facultativa. Dicha circunstancia al igual que la alteración o modificación de la fecha de inicio de los trabajos, no originará derecho a indemnización alguna dado que los licitadores han de contemplar dichos extremos a la hora de formular su oferta.

Horren ondorioz, lan programa aldatu egin daiteke lanak egin bitartean, betiere kontratuaren klausulak urratzen ez badira. Ezarritakoa horren kalterik gabe, lan programa eguneratu eta egunean jarri beharko du kontratistak, kontratuko baldintzak aldatzen diren bakoitzean, Administraziotik jasotzen dituen jarraibideen arabera.	En consecuencia, el programa de trabajos puede ser objeto de modificaciones durante el desarrollo de las obras, siempre que no contravengan las cláusulas del contrato. Sin perjuicio de lo anteriormente establecido, el programa de trabajos deberá actualizarse por la empresa contratista cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, procediendo a la fijación o actualización y puesta al día del mismo conforme a las instrucciones que reciba de la Administración.
Ildo horretatik, dagozkion bilerak egingo dira Udaleko Zerbitzu Teknikoen, obra zuzendaritzaren eta enpresa kontratistaren artean, eta elkarrekin zehaztuko dute obren programazioa.	En este sentido, se mantendrán las oportunas reuniones con los Servicios Técnicos Municipales, la Dirección de obra y la empresa contratista donde se determinará conjuntamente la programación de las obras.
Obra egin bitartean erabakiz gero kontratua iraungitzea, dagokion akta jasoko da eta obrak iraungi eta berriro hasteko akordioak hartuko dira.	Si durante el desarrollo de la obra se acuerda la suspensión del contrato, se levantará el acta correspondiente y se adoptarán los respectivos acuerdos de suspensión y reinicio de las obras.
Lizitatzaileak proposatutako epe zehatzari buruz exekuzioan berandutuz gero, Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoaren Kontratuen 193 eta 195 artikuluetan xedatutakoa aplikatuko da.	En caso de demora en la ejecución respecto del plazo concreto propuesto por la empresa licitadora, será de aplicación lo dispuesto en los artículos 193 y 195 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.
Kontratista berandutze egoeran egongo da epe hori igaroz gero, eta Administrazioaren aldetik ez dago ohartarazi beharrik izango.	El contratista se entenderá incurso en mora por el transcurso del plazo citado, no siendo necesaria intimación previa por parte de la Administración.
4.- BALIABIDE LAGUNGARRIAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA.-	***4.- MEDIOS AUXILIARES Y SEGURIDAD Y SALUD.-***

Adjudikazioduna behartuta dago obretara ekartzen beharrezkoa den makineria eta baliabide lagungarriak, obra behar bezala egiteko, kontratuan hitzartutako epeetan. Halaber, behar diren neurriak hartu behar ditu langileen, oinez dabiltzanen eta mugakide diren jabeen segurtasuna kontuan izateko.	La empresa adjudicataria queda obligada a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sean precisos para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato. Asimismo deberá adoptar todas las medidas necesarias tendentes a observar la seguridad del personal de obra, viandantes y propiedades colindantes.
Obrak behar bezala egin eta edozein obra unitate bukatzeko behar diren lan guztiak, baliabide lagungarri eta materialak, baita laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementuak ere, prezioan bertan sartuta daudela kontsideratuko dira, nahiz eta ez agertu horiek guztiak zehazturik prezioen deskribapenean.	Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales así como las unidades o elementos de seguridad y salud en el trabajo, que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra, se considerarán incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios.
Lehenago ezarri bezala, obrak hasi baino lehen, kontratista adjudikaziodunak oinarrizko segurtasun eta osasun plana egingo du, proiektuan jasota datorren oinarrizko segurtasun eta osasun azterketan oinarriturik, eta horrek azterketan datozen aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko ditu, eta egokituko zaie exekutatu beharreko eraikuntza obrei eta beti haren exekuzio sistemaren arabera.	Tal y como se ha estipulado anteriormente, previo al inicio de las obras la empresa contratista adjudicataria elaborará un Plan Básico de Seguridad y Salud en base al Estudio Básico de Seguridad y Salud contemplado en el proyecto, que analice, estudie, desarrolle y complemente las previsiones contenidas en el Estudio, adecuándolo a las concretas actuaciones de obra a ejecutar y siempre en función de su propio sistema de ejecución.
Bestalde, ez da onartuko kontu-sail berezirik, sarbideak egokitzeari, garraioari eta materialaren zamalanei dagokienez, aurrekontu orokorrean sartuta ez badago, izan ere, horiek hartuko ditugu obra unitateen aleko prezioetan sartuta egongo balira bezala.	Por otra parte, no se admitirá ninguna partida extra correspondiente a la habilitación de accesos, transporte y carga-descarga del material, que no esté incluido en el presupuesto general, puesto que se considera que se encuentran englobados en los precios unitarios de las unidades de obra.
Halaber, enpresa kontratistak bere kontura jarri beharko ditu behar diren seinaleak, obrara iristeko bidea adierazteko, trafikoa erregulatzeko edo lan eremuetan oinezkoak ibiltzeko eta arriskua izan dezaketen lekuak adierazteko, esku hartu behar duen eremuan bertan, nahiz haren mugetan edo inguruetan,	Asimismo, la empresa contratista deberá instalar por su cuenta las señales precisas para indicar el acceso a la obra, la regulación del tráfico o tránsito peatonal en las zonas de trabajo y los puntos de posible peligro, tanto en la propia zona de intervención como en sus lindes e inmediaciones, así como a adoptar

eta, gainera, segurtasun neurri guztiak hartuko ditu obraren izaerak eskatzen dituenak, pertsonentzat eta ondasunentzat.	todas las medidas de seguridad para las personas y bienes, que exija la naturaleza de la obra.
5.- HONDAKINAK KUDEATZEA.	***5.- GESTIÓN DE RESIDUOS.-***
Enpresa adjudikaziodunak plan bat egin beharko du eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak kudeatzeko, zeinak bete eta garatuko duen proiektuaren Hondakinen Kudeaketa Azterketa.	La empresa adjudicataria deberá realizar un Plan de gestión de residuos de construcción y demolición que cumplimente y desarrolle el Estudio de Gestión de Residuos del proyecto.
Obrak hondakinak sortuz gero, obraren kapitulu guztietan eta bakoitzean aurreikusitako jarduketa guztiek jaso behar dute, partida bakoitzari lotutako aleko prezioetan, zer kostu duen hondakinak gaika biltzeko edukiontzien alokairuak, hondakin horiek eraman eta uztea era ordenatuan edukiontzietan, edukiontzi horiek eramatea hondakindegira edo zabortegira, baimendua Eusko Jaurlaritzak, distantzia edozein izanik, bai eta isurketa erlazionatua ere.	Toda actuación prevista en todos y cada uno de los capítulos de la obra que genere residuos, debe contemplar en sus precios unitarios asociados a cada una de las partidas, el coste de alquiler de contendedores para la recogida selectiva de residuos, el traslado y depósito de esos residuos de forma ordenada a contenedores, el transporte de dichos contenedores a escombrera o vertedero autorizado por el GV independientemente de la distancia, asi como el vertido asociado.
Obran hondakinen kudeaketak jarraitu beharko ditu gomendio hauek, definitu eta zehaztu beharko direnak planean bertan:	La gestión de residuos en obra deberá seguir las siguientes recomendaciones que se deberán definir y concretar en el propio plan:
.- Eraikitze eta eraiste lanetako hondakinak (EEH) bukaeran nora eroan kontrolatu ahal izateko, obratik edukiontzi batek irteten duen bakoitzean garraiolariak eroan beharko du albaran bat sinaturik, biltegiratu beharko dena obran.	.- Con el fin de poder controlar el destino final de los residuos de construcción y demolición (RCD), cada vez que salga un contenedor de la obra el transportista que lo retire deberá llevarse firmado un albarán que deberá ser almacenado en obra.
.- Azpikontratek bete beharko dituzte Hondakinen Kudeaketa Planaren arauak kontratu bakoitzeko.	.- Las subcontratas, deberán cumplir las Normas del Plan de Gestión de Residuos por contrato.
.- Kontratistak behar diren baliabide logistikoak emango ditu, kontratek beren EEHak manipulatu ahal izateko, batez ere garraiobideak eta pilatzekoak.	.- El contratista deberá proporcionar los recursos logísticos necesarios para que las subcontratas puedan manipular sus RCDs, principalmente medios de transporte y de acopio.
Neurri horiek abian jartzeko, erreferentziatzat	Para la puesta en marcha de estas medidas se

hartu daiteke Ihobe-ren eskuliburua Hondakinen Kudeaketa Plana idatzi eta ezartzeko (maila aurreratua).	podrá tomar como referencia lo establecido en el Manual de Ihobe para la Redacción e Implantación del Plan de Gestión de Residuos (nivel avanzado).
Obran EEHen kudeaketaren bilakaera izango da jarraipenaren aldizkako bileren derrigorrezko puntu bat	La evolución de la gestión de los RCD en la obra será un punto obligado de las reuniones periódicas de seguimiento de la misma.
6.- OBRARI ESLEITUTAKO TEKNIKARIAK	***6.- PERSONAL TÉCNICO ASIGNADO A LA OBRA.-***
Obra egin bitartean izango duen teknikari taldearen deskribapena jasoko du lizitatzaileak eskaintzan, eta baloratuko da hauek agertzea:	La empresa licitadora incluirá en su oferta la descripción del equipo técnico que se compromete a tener durante la ejecución de la obra, este sentido se valorará que se indique:
.- Obran parte hartuko duen lantalde teknikoaren kide guztien izenen zerrenda, eta zehaztuko da haien titulazioa, zer urtetan lortu duten titulazioa eta antzeko obretan duten eskarmentua, exekuzioan edo bukatuta aipatuta zer zeregin bete izan duten eta zer aurrekontu izan duen bere ardurapeko obrak edo instalazioak.	- Relación nominal del personal que participará en esta obra, con especificación de su titulación, año de obtención de la titulación y experiencia en obras similares en ejecución o finalizados con indicación de las funciones desempeñadas y presupuesto de obra o instalación a su cargo.
- Organigrama bat egin beharko dute, non ikusi ahalko diren zuzendaritzakoen, teknikarien eta administrarien karguak edo ardurak, titulazioak, egitekoak eta dedikazioak (ehunekotan, lan guztiei buruzko denboraren araberakoa), kontratu honi esleitutakoak. Baita ere, zer harreman eta komunikazio ezartzen diren esku hartzen duten guztien artean.	- Se deberá realizar un organigrama en el que se podrán apreciar los cargos o responsabilidades, titulaciones, funciones y dedicaciones (tanto por ciento, en relación a su tiempo total de trabajo) del personal directivo, técnico y administrativo asignados a este contrato. Así como la relación y comunicaciones que se establecen entre todos los agentes intervinientes.
Agiriaren xedeko obrari esleitutako talde teknikoak obra burua izango du, kontratistaren ordez aritzeko elkarrizketetan, eta haren titulazioarengatik eta esperientziarengatik gaitasun egokia izango du, obraren ezaugarrien eta konplexutasunaren arabera.	El equipo técnico asignado a la obra objeto del pliego deberá contar con un Jefe de Obra que asumirá la interlocución y representación técnica de la empresa contratista y que por su titulación y experiencia tendrá la capacitación adecuada de acuerdo con las características y la complejidad de la obra.
Obra burua kontratistaren ordezkaria izango	El Jefe de Obra será el representante de la

da Udalak izendatzen duen gerentziaren aurrean, eta Zuzendaritza Fakultatiboa, horren ondorioz, aldeen arteko formazko komunikazio bidea izango da.	empresa contratista frente a la gerencia designada por el Ayuntamiento, y la Dirección Facultativa, en consecuencia cauce, de comunicación formal entre las partes.
Memoriari erantsita aurkeztu ahalko dira lantalde teknikoa osatzen duten kide bakoitzaren curriculum osoak (zehaztuko dira zer titulazio duten, zer urtetan lortu duten eta obretan duten esperientzia egiaztatua). Eranskin hauek kontuan hartuko dira memoria teknikoa baloratzeko orduan, beti ere memoria teknikoan esandakoaren osagarri badira eta bertan jasotakoarekin koherenteak baldin badira.	Se podrán presentar como anexos a la memoria, los currículums completos de cada uno de los integrantes del equipo técnico (con especificación de su titulación, año de obtención de la titulación y experiencia acreditada en obras). Dichos anexos se tendrán en cuenta a la hora de valorar el apartado correspondiente de la memoria técnica, siempre que sean coherentes y complementarios a lo enunciado dentro de la memoria técnica.
Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du, idatzi sinatu baten bidez talde tekniko bera edukitzen kontratuaren prozesu osoan.	El adjudicatario se comprometerá a mantener, mediante escrito de compromiso firmado, el mismo equipo técnico durante todo el proceso del contrato.
Taldeko teknikariren bat aldatuz gero kontratuaren aldiren batean, teknikari berriak bete beharko ditu, gutxienez, lanbide ezaugarri batzuk, eskaintzan jasotako titulazio, eskarmentu, erantzukizun, funtzio eta dedikazio maila parekoak.	En caso de sustitución de algún técnico del equipo en alguna de las fases del contrato, la nueva persona deberá reunir, cuando menos, unas características profesionales equiparables en titulaciones, experiencia, responsabilidades, funciones y dedicaciones a las ofertadas.
Nolanahi ere, ordezkatze hori udalak baimendu beharko du aldez aurretik eta berariaz.	En todo caso, la sustitución deberá ser autorizada previa y expresamente por el Ayuntamiento.
7.- AZPIKONTRATISTAK ETA HORNITZAILEAK.-	***7.- LOS SUBCONTRATISTAS Y SUMINISTRADORES.-***
Adierazi beharko ditu adjudikaziodunak azpikontratatzea aurreikusten dituen enpresak (adieraziko da kontratuaren zein zati egingo duen bakoitzak), memoria teknikoaren eranskin batean.	La empresa adjudicataria indicará, en un anexo a la memoria técnica, las empresas que prevea subcontratar (con indicación de las partes del contrato a realizar por cada una de ellas).
Kontratista behartuta egongo da bilera bat egiten azpikontratatutako enpresa	La empresa contratista estará obligada a realizar una reunión con cada una de las

bakoitzarekin, obra zuzendaritzarekin eta obraren gerentziarekin, edozein instalazio edota azpikontratatu behar den obraren edozein zati exekutatu baino lehen.	empresas subcontratadas, la dirección de obra y la gerencia de la obra, previamente a la ejecución de cualquier instalación y/o parte de la obra que se vaya a subcontratar.
Enpresa azpikontratista horiek aldatzeko, udalaren berariazko baimena beharko da.	La alteración de dichas empresas subcontratistas deberá contar con la autorización expresa del Ayuntamiento.
8.- OBRA BISITALDIAK.-	***8.- VISITAS DE OBRA.-***
Obra bisitaldiak egingo dituzte Udalak izendatutako gerentziak beharrezkotzat joz gero, eta astean behin behintzat. Horietara joango dira nahitaez obra zuzendaritzako teknikariak eta obra burua, eta aldizka Udalak izendatutako gerentziako kideren bat.	Las visitas de obra se realizarán siempre que la gerencia designada por el Ayuntamiento lo considere necesario, y al menos una vez a la semana. A las mismas acudirán obligatoriamente el personal técnico de la Dirección de Obra y el Jefe de Obra, y periódicamente algún miembro de la gerencia designada por el Ayuntamiento.
9.- LANAK EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK.-	***9.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN DE LOS TRABAJOS.-***
Enpresa adjudikaziodunak behar diren gestioak egin behar ditu, bai enpresa hornitzaileetan, bai administrazio eskudunetan, Proiektua exekutatzeko behar diren baimenak lortzeko, baina eskabide formalak udalak bete behar ditu.	La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.
Obra zuzendariak erabaki dezake ez ematea ontzat ziurtagiriak, kontratistak behar bezala lan programa aurkeztu arte, berandutza interesen eskubiderik gabe, hala badagokio, ziurtagiri horien ordainketan atzeratzeagatik.	El director de la obra podrá acordar no dar curso a las certificaciones hasta que el contratista haya presentado en debida forma el programa de trabajo, sin derecho a intereses de demora, en su caso, por el retraso en el pago de estas certificaciones.
10.- OBRA ITXITURAK ETA OBRA SEINALEAK.-	***10.- CIERRES Y SEÑALIZACIÓN DE OBRA.-***
Adjudikaziodunaren ardura izango da obra	Será responsabilidad del adjudicatario el

ondo ixtea eta obrako seinaleak jartzea: horretarako, behar bezalako materialak eta langileak izango ditu, seinaleak zuzen eta egoki jartzeko.	correcto cierre y señalización de la obra; contando para ello con el material y el personal señalista que garanticen la correcta materialización de la señalización.
